

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak

**Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen
Irakaskuntzan**

Berezko Tituluko Proiektua

Mahara ePortfolioaren erabilera online Irakaskuntza Masterrean

Egilea

Aitzol Astigarra Pagoaga

Zuzendaria

Abel Camacho



ueu

udako
euskal unibertsitatea

2020

Laburpena

Proiektu honek, UEUK abian jarriko duen Irakaskuntza Masterrean portfolio digitala integratzeko proposamena jasotzen du, egun erabiltzen den Ikasgela Birtualaren osagarri gisa eta ikaslea bere ikas-prozesuaren arduradun eta kudeatzaile bihurtuz.

Helburu horretara bidean, goi-mailako irakaskuntzan portfolioaren erabilerari buruzko azterketarekin hasi eta, ikasitakoa masterraren testuinguru konkretura ekarriz, portfolioaren diseinu orokorra egin da; zertarako nahi dugun eta nola erabiliko dugun ebatziz.

Aukera ezberdinen artean, Mahara portfolio-plataformaren aldeko hautua egin eta 5 proposamen didaktiko garatu dira, 2020-21 ikasturtean martxan jarriko direnak.

Gaien aurkibideak

Indizea

Laburpena.....	2
Gaien aurkibideak.....	3
Irudien aurkibidea.....	5
Sarrera.....	6
Proiektuaren helburuak.....	8
Metodologia.....	9
Marko teorikoa.....	10
Erabilera Esparru Orokorra.....	13
Helburua.....	15
Egitura.....	15
Ebidentzia motak.....	16
Arduraduna.....	16
Tresna.....	17
Plataformak eta tresnak.....	17
Nola egin aukera?.....	18
UEUren apustua: Mahara.....	19
Mahara: oinarritzko erabilera.....	22
Proposamen didaktikoak.....	24
Aurkezpena.....	24
Diziplinarteko lana (DILAN).....	26
Practicum.....	28
Berrikuntza Ikasgelan.....	30
Master Amaierako Lana.....	32
Ondorioak.....	34
Bibliografia.....	35

1. KAPITULUA

Sarrera

Egitasmo guztiek izaten dute abiapuntu edo motibazio jakin bat eta, kasu honetan, nireak 2019ko HEZikt graduondokoan dauka jatorria: ikasturtea amaitu zelarik Moodle plataformarako sarbidea itxiko zela adieraziz mezu bat iritsi zitzaidan baina, momentu hartan, ez nion kasurik egin. Udarari, graduondoko edukiak jaso eta ordenatzeko asmotan Ikasgela Birtualera sartu nahi izan nuenean, ez neukan sarbiderik jada. Atea itxita zegoen. Lokalean, neure ordenagailuan, pdf formatuan jasotako artikulua batzuk eta bakarka edo taldeka landutako lanak neuzkan. Ikastaroetako edukia, bibliografia eta foroetako eztabaidak eta ekarpenak, denak galdu nituen. Galera handia izan zen niretzat, artikulua eta erreferentziak erreperatzea ez zen hainbestearainokoa, baina foroetako mezuak ezin berriro jaso, galduak ziren betirako. Graduondoko ekarpen interesgarrienetakoak han zeuden, eta nik egindakoaz gain ikaskideen berri jasotzeko modua ere bai. Halere, gaitz erdi HEZikt¹ webguneak ikasgaien sintesiak eta ikasleen lanak jasotzen baititu.

Graduondokoaren bigarren zatia egin behar nuelarik, berriro horrelakorik ez gertatzeko kezka neurekin izan dut eta, azkenean, proiektu honekin eman nahi izan diot erantzuna. Horixe beraz lan honi ekiteko nire abiapuntua eta motibazioa.

2020-21 ikasturtean, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) Irakaskuntza Masterra² eskainiko du *b-learning*³ edo modalitate erdi-presentzialean. Master berri honek, 2003. urtetik UEU garatzen ari den online ikasketetan pausu esanguratsua suposatuko du, bai ikasketen izaeragatik eta baita jasoko duen ikasle kopuruagatik ere.

1 <https://hezikt.eus/>

2 <http://www.ueu.eus/ikasi/masterra>

3 https://eu.wikipedia.org/wiki/Ikasketa_erdipresentziala

Aurtengo ikasturtea, 2019-20, masterra diseinatu eta antolatzekoa izan da eta egilea bera lan horretan ari denez, abagune ezin hobea eskaini dio (1) online ereduaren egokitzapena bertatik-bertara ezagutzeko eta (2) proiektu honekin, abiapuntu gisa planteatutako kezka ardatz gisa hartuta, masterraren azpiegitura teknologikoari ekarpena egiteko. Helburu horrekin, ikas-irakas ingurunea Moodle-tik harago eramango duen tresna proposatuko dugu, hura erabiltzeko gida didaktikoak eskainiz. Tresna hori portfolio digitala da, ikaskuntza-prozesuaren ebidentziak bildu, antolatu eta horietaz hausnartzea helburu duen tresna. Ikaslearengan oinarritutako tresna honek ikaslea bera bihurtzen du bere ikaskuntza-prozesuko protagonista.

Proiektuaren helburuak

Egitasmo honen helburu nagusiak ondokoak izango dira, beraz:

1. Goi-mailako ikasketetan, portfolioak ikaskuntzarako tresna gisa eskaintzen dituen aukerak aztertzea
2. Irakaskuntza Masterraren testuinguruan, portfolio digitalen posibilitate pedagogikoez jabetzea.
3. Mahara portfolio tresnaren aukeraketaz hausnartzea, alternatiba ezberdinak aztertzea.
4. Irakaskuntza Masterrean erabilgarriak izango diren portfolio ereduak eskaintzea

Metodologia

Proiektu honetan egin den lana, 3 bloke nagusitan banatu daiteke:

1. **Marko teorikoa:** proiektuaren lehen zatian, portfolio digitalen erabilerari buruzko azterketa bibliografikoa egin da, goi-mailako irakaskuntzan arreta berezia jarritz. Erabilera-kasuak aztertu dira eta onuren eta zailtasunen berri jasotzea izan da helburu nagusia.
2. **Erabilera Esparru Orokorra:** marko teorikoak portfolioaren diseinu eta inplementazioan zehaztu beharreko pausuak eman dizkigu. Atal honetan, Irakaskuntza Masterraren testuinguru konkretuan, portfolioaren diseinurako erabakiak hartu dira. Erabaki metodologikoak batetik eta inplementazio edo software aukeraketari dagozkionak bestetik.
3. **Proposamen didaktikoak:** azken blokean, Erabilera Esparru Orokorra aintzat hartuta eta Mahara portfolio-plataforma erabiliz, Irakaskuntza Masterrera 5 proposamen didaktiko garatu dira.

Marko teorikoa

Frantseseko *portefeuille* hitzetik eratorria, portfolioa esku zorro moduko bat da, paperak, dokumentuak, liburuak eta antzeko gauzak eramateko erabiltzen dena. Bulegariaren osagarri edo lan-tresna gisa ezagutzen duguna. Gurasoek beren seme-alaben elementu kuttunak jasotzeko erabilitako gordailuri ere portfolio deitu ohi zaio. Bataren eta bestearen atzean dagoen ideia nagusia antzekoa da: pertsona baten ibilbidea edo jarduna erakusten duten lanen bilduma bat.

Hezkuntza testuinguruetan, portfolioaren erabilera 90. hamarkadan abiatu zen Europan (López-Fernández, 2008) eta Espainian XXI. Mendearen hasieran kokatzen dira portfolioaren hastapenak (Salarirche, 2016). Portfolioa ikasleari irakaskuntzan egiten dituen ahaleginak eta emaitzak modu objektiboan dokumentatzeko eta erakusteko aukera ematen dion tresna da. Bertan, ikasleak, hausnarketa prozesu baten bidez, jardueren kantitatea eta kalitatea deskribatzeko eta aztertzeko modua dauka, eta bere ondorioak babesten ditu dokumentu eta materialekin.

Azken urteotan, betiko portfolioak albo batera utzi gabe, digitalak interes handia piztu du hezkuntza-teknologiaren arloan. Portfolio digital edo ePortfolio gisa izendatu ohi dira literaturan. Guk bi terminoak erabiliko ditugu bereizketarik gabe lan honetan.

Ikasketarako portfolioei dagokienez, Scully-k (Scully et al., 2018) hiru mota bereizten ditu: (1) ikasleek beren ikaskuntzari buruz hausnar dezaten erabiltzen dena (ikaskuntza aktiboa eta autonomia); (2) eskuratu dituzten gaitasunen ebidentziak ager ditzaten bultzatzeko bitarteko gisa erabilitakoa, dela prestakuntza-prozesu formaletan, dela prozesu informaletan (esaterako, lan-merkatu-rako zubi-gisa, gaitasunak baliozkotzeko, etab.). Eta (3) aurreko bien arteko konbinaketa litzatekeena.

Arloko literaturan sarri aipatzen den beste autore bat Klenowski da (Klenowski, 2004). Bere aburuz, helburuaren arabera honela sailkatu daitezke portfolioak :

1. Ebaluazio sumatiborako

2. Konpetentzien egiaztapen eta hautagaien aukeraketarako
3. Lanpostuaren balorazio eta lan-igoeretakarako
4. Ikaskuntza eta irakaskuntzarako
5. Garapen profesionalerako

Sailkapenak ugariak badira, baita portfolio digitala definitzeko ahaleginak ere. Definizio ugari topatuko ditugu literaturan. Hortik ondorioztatu daiteke ez dagoela portfolio bat eta bakarra, portfolioaren definizioa erabileraren, funtzioaren, izaeraren eta helburuaren arabera dela.

Ikaskuntzara bideratutako portfolio-definizioen artean, Corley eta Zubizarretak (Corley & Zubizarreta, 2012) aurkeztutakoa ekarri dugu hona, gure iritziz osoena delakoan: "ikaslearen lanaren eta lorpenen lagin hautatuak biltzen dituen leku edo gailua da, ikasgelakoak eta ikasgelatik kanpokoak izan daitezke lagin horiek eta denboran zeharreko lorpenen ebaluazioa ahalbidetzen dute. Eportfolio tipiko batek material akademikoak nahiz profil pertsonalak izan ditzake, eta eduki batzuk publiko edo pribatu gisa izenda ditzake jabeak. Eportfolioa, orduan, produktu bat baino gehiago bihurtzen da, elementu-biltegi huts bat baino gehiago. Norbere lanaren hausnarketa, antolaketa, lehenetsun, analisi eta komunikazio-prozesu bihurtzen da"

Euskarri digitalak eta, oraintsuago, ingurune birtualak erabiltzeak aurkezpen -eta antolaketa- modu malguago eta sendoagoak erraztu ditu, bai eta testuinguru edo publiko espezifikoetara egokitutako ikuspegiak kudeatzeko gaitasuna ere. Horrek guztiak, goi-mailako hezkuntzan ePortfolioaren erabilerak nabarmen gora egitea ekarri du (Fisher & Hill, 2015; Encarnación Soto Gómez et al., 2016; Lewis, 2015; Salarirche, 2016; Santa Cruz et al., 2019).

Beraz, laburbiltzeko ahalegina eginda, portfolio digitala ikaskuntza-prozesu baten ibilbidea jasotzeko tresna bat da, prozesu horretan zehar sortu diren baliabideen bidez. Aldi jakin batean lortutako esperientziak, ikaskuntzak eta emaitzak deskribatzen eta ilustratzen dituen bilduma pertsonal digitala.

Pedagogia- eta antolaketa-ikuspegiaren arabera prozesuaren edo produktuaren pisu erlatiboa alda badaiteke ere, portfolio digitalak bi osagai hauek izango ditu beti (Scully et al., 2018): prozesua, ikaslearen eta haren ingurunearen arteko hausnarketa eta interakziorako espazio gisa; produktua, ebaluazio- eta aurkezpen-tresna gisa.

Aldi berean, bere potentzialtasuna ustiatu ahal izateko, portfolio digitalak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren esparruan zentzua emango dioten kontzeptu, planteamendu

eta estrategia global batetik abiatu behar du. Barberak (Barberà et al., 2006) azpimarratzen duen bezala, helburua ez da ikasleen jardueren bilduma zehatz bat biltzea, baizik eta jardunbide egokien hautaketa bat eraikitzea, ikasten ari dela erakusteko edo gai edo helburu jakin bati buruz zer ikasten ari den erakusteko gai izango dena. Egile honek prestakuntzarako portfolio digitalaren zeregina nabarmentzen du, ikaskuntzaren une jakin bati buruzko informazioa ematen duelako eta ikasleen euskarria eta atzeraelikadura eskaintzen dituelako.

Dena den, ez da posible ikaskuntza prozesuaren planteamendu global hori ebaluazioa aintzat hartu gabe. Ondorioz, portfolioak ebaluaziorako tresna gisa indarra hartu du goi-mailako irakaskuntzan (Buente et al., 2015; Díaz Barriga Arceo et al., 2012; Muñoz González & Soto Gómez, 2020; Santa Cruz et al., 2019).

Portfolio digitalak, garapen profesionalerako tresna gisa, hainbat errealizazio izan ditu, bai hezkuntzaren esparruan, bai esparru horretatik kanpo (Barberà et al., 2006; Pujolà, 2019). Oinarri profesional handikoa, portfolio digitala partekatu daitekeen tresna bat da, ikasgelako mugak gainditzeko dituen. Ondorioz, gure ikasleek beren prestakuntza ibilbidearen aurkezpeneko gutun gisa erabil dezakete. Sarean egoteak bide ematen du horretarako, egileak ikusgarritasuna eman diezaiokelako nahi izanez gero. Gai hori ez da hutsala; izan ere, portfolio digitalari eskola-jarduera gisa duena baino balio handiagoa ematen dio, eta, beraz, ikasleek hezkuntza-munduaren aurrean duten prestakuntzaren eta garapen profesionalaren adibide gisa erabil dezakete.

Amaitzeko, orain arte esandakoak jaso eta antolatzen ahaleginduko gara gure bi galdera nagusien inguruan: Zergatik erabili portfolioak? Zeintzuk dira onurak? Autore ezberdinen iritzia jaso ditugu:

- Portfolioan oinarritutako ebaluazioak aukera ematen die ikasleei beren ikaskuntza barneratzeko eta moduluen arteko loturak egiteko, modu benetakoan eta esanguratsuan (Donaldson et al., 2018; Morreale et al., 2017; Siarova et al., 2017).
- Portfolioa erabiltzeak ikaslearen komunitate bateko kide izatearen sentipena eta ikaskideekin lankidetzan aritzea bultzatzen dezake (Muñoz González & Soto Gómez, 2020).
- Portfolioek aukera ematen diete ikasleei modu autoerregulatuan ikasteko, eta baita pentsamendu kritikoari lotutako trebetasunak garatzeko ere (Arís Redó & Fuentes Loss, 2016; Farrell & Seery, 2019).

- Gaitasun digitala garatzen laguntzen du (Pujolà, 2019), Europako Batzordearen arabera (Carretero et al., 2017; Kluzer & Priego, 2018), ezinbesteko gaitasunetako bat izanik berau herritar gisa rol aktiboa izateko.

Erabilera Esparru Orokorra

Gure ikaskuntza-programan portfolio digitala erabiltzeko erabakiaren aurrean, kontuan hartu behar ditugu zenbait gogoeta, haren inplementazioak ahalik eta arrakasta handiena izan dezan. Ikasleen gaitasunen garapenerako duten erabilgarritasunaz eta potentzialaz konbentzita gaudenean, inplikaturako ekintza didaktikoak nola gauzatu behar diren aztertu behar dugu. Portfolio ona egitea lan erraza izan daiteke, nola egin behar den kontuan hartuz gero. Horregatik, atal honen xedea da planteatzea zer estrategia didaktiko gauzatu behar diren portfolio bat ezartzeko orduan, zer urrats egin behar dituen irakasleak fase bakoitzean, eta zer emaitzatar iritsi behar duen ikasleak bere helburuak beteko dituen portfolio bat lortzeko.

Portfolioa bera ez dago irakaskuntza-ikuspegi jakin batera mugatuta, baina sarritan ikuspegi konstruktibistei lotutako tresna gisa agertu da (Büyükduman & Şirin, 2010). Portfolio digitala prestakuntza-programa jakin batean inplementatzeko erabakiak berekin dakar hura erabiltzeari buruzko erabakiak hartzea; izan ere, tresnak berak ez du zehazten haren potentzial osoa aktibatzea. Ikasleak diseinuan, egituraren eta edukian parte hartzea espero da, baina, aldi berean, erreferentziazko programaren curriculumarekin koherenteak izan behar dute (Díaz Barriga Arceo et al., 2012). Autore horiek diotenez, portfolio digitalak, ikasteko ahalmen guztia aktibatzeko, irakaskuntza-prozesuaren parte izan behar du, guztiz integratuta egon behar du irakaskuntza-prozesuan, eta ez da aurkeztu behar ebaluazio-tresna isolatu gisa. Aitzitik, tresna hori ikaslearen garapenera eta testuinguru kulturalera egokitu behar da, testuinguru hori zabal ulertuta.

Beraz, portfolioaren diseinuari ekin baino lehen, komeni da zehaztea zer-nolako hezkuntza-proposamenean integratu nahi dugun:

Irakaskuntza Masterrak, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntzen-irakaskuntzan, irakasle gisa arituko direnak prestatu eta gaitzea du helburu

nagusi. Horretarako, etapa ezberdinetan irakasle gisa beharko dituzten ezagutza eta kompetentziak barneratuz eta profesional gisa prestatuz.

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), UPV/EHUren zentro atxiki gisa, euskaraz eta online eskainiko du master hau 2020-21 ikasturtean. Ikasleen garapen-alor ezberdinekin lotutako ondoko espezialitateak eskainiko dira: Natur Zientziak eta Matematika, Giza eta Gizarte Zientziak eta Hizkuntza eta Literatura.

Online modalitate honetan, eskolak Ikasgela Birtualaren⁴ bidez emango dira. Ikasketak burutu eta ebaluatzeko behar dituen tresna eta baliabide guztiak eskura izango ditu uneoro bertan ikasleak.

Masterrak **60 ECTS**stako iraupena dauka, honela antolatuta:

- **Modulu orokorra (MO):** Espezialitate guztietarako berdina izango den formazio psikopedagogikoa.
- **Modulu espezifikoak (ME):** Espezialitateari dagokion formazio didaktikoa.
- **Practicuma:** Praktikak hezkuntza zentroetan.
- **MAL:** Master Amaierako Lana.

Modulu generikoa	Modulu espezifikoak	Practicum	Master Amaierako Lana
Formazio psikopedagogikoa	Espezialitate bakoitzeko formazio didaktikoa	Praktikak hezkuntza zentroetan eta practicum txostena	Ikerketa lan bat definizioa, garapena eta defentsa
18 ECTS	24 ECTS	12 ECTS	6 ECTS
Erdi presentziala	Erdi presentziala	Aurrez aurrekoa	Aurrez aurrekoa

Azaldutako guztia kontutan hartuta, portfolioaren Erabilera Esparru Orokorra definitzeko ariketa, ondoko 5 urratsetan banatu dugu:

⁴ <https://ikasgela-birtuala.ueu.eus/>

Helburua

Lehen erabaki garrantzitsua portfolioa zertarako nahi dugun definitzea izango da: ebaluaziorako tresna gisa, ikasleen garapena jasotzeko, erakusleho bezala...

Proiektu honetan, Scully-k (Scully et al., 2018) proposatutako Ikaskuntza portfolioaren helburu bikoitzaren alde egingo dugu, bai ikaskuntza-prozesua bai lorpenak, biak, ikasleen ePortfolioan islatuz. Klenowski-ren (Klenowski, 2004) sailkapena aintzat hartuz gero, laugarren erabilera emango genioke, Ikaskuntza eta irakaskuntzarako tresna gisa. Gainera, ikasleek beren garapen pertsonal eta profesionalerako ere erabiliko dute, eta irakasleen ardura izango da ikasleak beren ikaskuntza-prozesuan gidatzea.

Beraz, ikasleei eman beharreko atzeraelikadura etengabea izan beharko da, guztiak ebaluazio formatiboaren norabidean jarriz.

Egitura

Goi-mailako hezkuntzaren esparruko portfolio digitalak hainbat modutan erabili dira, irakasleak hura ezartzeko duen interesaren eta lanaren arreta-fokuaren ezaugarrien arabera.

Horrela, portfolio digitalaren erabilerak lau eremutan sailka daitezke (Pujolà, 2019): (1) portfolio digitalaren erabilera ikasgaietan, ikasleek egiten duten titulazioaren zeharkako gaitasunen garapena erakusteko erabilera, (2) titulazioaren praktikekin lotutako ebidentzien lagin gisa erabiltzea (Rubio Hurtado et al., 2015), (3) ikasturte oso batean erabiltzea, master bat izan daitekeen bezala (Encarna Soto Gómez et al., 2016; Munday, 2017), eta (4) izaera profesionaleko erabilera, unibertsitatearekin zuzenean behintzat loturarik ez daukan erabilera.

Guztiak ezaugarri bera dute komunean: ikasleek irakaskuntzan garatu duten prestakuntzaren bilakaeraren lagin bat izan nahi dute, xehetasun gehiagorekin edo gutxiagorekin.

Irakaskuntza Masterraren antolaketari erreparatu behar diogu portfolioaren egitura definitzerako orduan. Masterrak ikasturte bateko iraupena dauka eta irakasgai bakoitzak 3 astekoa. Irakasgai zentratutako portfolioa motz geratuko litzateke gure ustez, ikasleak ez bailuke astirik izango ibilbide bat osatu edo arnasa luzeko gogoetarik egiteko. Ikuspegi orokorrago batetik, masterra bere osotasunean hartuta, ondoko

eremu edo zereginak egokiak iruditu zaizkigu portfolioaren erabilera sustatzeko, bai beren iraupenagatik eta baita zereginaren izaeragatik ere:

- Diziplinarteko lana (DILAN): Modulu generikoaren baitan, 2 hilabeteko iraupena.
- Practicum: praktikan hezkuntza zentroan, 2 hilabeteko iraupena.
- Berrikuntza Ikasgelan: Modulu espezifikoaren baitan, 3 asteko iraupena.
- Master Amaierako Lana (MAL): ikerketa lana, hilabeteko iraupena.

Ebidentzia motak

Portfolio digitalaren ezaugarria da, bere homologo analogikotik bereizten duena, elkarrekintzarako duen potentziala eta testu multimodal eta hipertestualak eraikitze eskaintzen duen aukera. Portfolioa bera (edo aukeratutako elementu batzuk) talde/gela edo are komunitate handiago batekin sarean elkarbanatu eta haien feedback-a jasotzeko aukera.

Portfolio multimodalak, eduki mota ezberdinak jasoko ditu: irudiak, testua, ahotsa, justifikazioa, hausnarketa... Idazkeraren, ahozkoatasunaren eta irudi estatikoaren eta mugimenduan dagoenaren arteko bereizketa desagertzera irits daiteke modu ezberdin horiek elkarri lotuta agertzen diren testu bat eraikitze.

Bestalde, hipertestualitateari esker, informazioa modu ez-sekuentzian eta sarean aurkez daiteke portfolio digitalean, irakurleak bere irakurketa-ibilbidea sor dezan. Hipertestuak irakurlea ibilbide desberdinetatik gidatzeko aukera ematen dio egileari, bai portfolioaren baitan eta baita handik kanpo ere.

Portfolio digitalek eskaintzen duten beste alderdi bat ikaskuntza-komunitateak sortzea da (Muñoz González & Soto Gómez, 2020); izan ere, plataforma batzuek egindako lana gainerako ikaskideekin eta irakaslearekin erraz partekatzeko aukera ematen dute; egungo sare sozialetan bezala, besteen edukiak bisitatu eta komentatu daitezke. Komunitate horiek berdinen arteko ebaluazio-jardueren zeregina errazten dute.

Arduraduna

Erabaki beharreko puntu garrantzitsua izango da portfolioaren arduraduna nor izango den: ikasle bakoitza berearen arduradun izan daiteke, taldeko portfolioak osatu daitezke eta ardura partekatu edo eta irakaslea bera ere izan daiteke arduraduna. Hartuko dugun erabakiak tresnari emango diogun erabilera erabat baldintzatuko du.

Gure hurbilpena honakoa da: ikaslea izango da bere ePortfolioaren jabe eta arduraduna, irakaslearen laguntza izango duelarik hura erabiltzen ikasteko.

Alde horretatik bat egiten dugu autore gehienek ikuspegiarekin (Pujolà, 2019; Rey Sánchez, 2015; Thibodeaux et al., 2017): Ikaslea etengabeko garapen profesionalaren protagonista izan dadin laguntzea da portfolio digitalaren anbizio pedagogikoa. Ikaslea da bere gunearen edo portfolioaren jabea, gorde ahal izango du eta bere bizitzan zehar elikatuko du; funtsezko pieza izango da bere nortasun profesionala eraikitzeko bidean.

Baina, bestalde, ikasleak portfolio digitala ezagutu eta erabileran aurrera egin dezan, irakasleak, tutoretza-ekintzaren bidez, ikasleen ikaskuntza-prozesua laguntzea eta gainbegiratzea beharrezkoa izango da. Horretarako, ezinbestekoa da jarraipen-espazioak sortzea, non irakasleak ikasleek ezagutza eraikitzeko prozesuan lortzen dituzten aurrerapenak aztertuko dituen, eta beharrezko atzeraelikadura emango dien, segurtasunean eta autonomian aurrera egin dezaten (Santa Cruz et al., 2019; Siarova et al., 2017).

Tresna

Portfolio elektronikoaren kontzeptuak ez du tresna jakin batean zentratu behar, baizik eta ikaskuntza-prozesu bat islatzen eta aurkezten duten jarduera batzuen konbinazioan. Hala ere, tresnaren hautaketa garrantzitsua da, tresna edo inplementazio bakoitzak bere ezaugarri propioak dituelako eta ezaugarri horiek gure proposamen pedagogikoa lagundu dezaketelako edo oztopatu. Hurrengo atalean landuko dugu zehaztasun handiagoz puntu hau.

Plataformak eta tresnak

Portfolio digitalak sortu eta kudeatzeko tresna eta plataforma ugari daude gaur egun. Badira zenbait berariaz hezkuntza-testuinguruetarako garatu direnak, hala nola Mahara, MyDocumenta edo PebblePad; unibertsitateek berek garatutako plataformak, hala nola CADUB⁵ (Bartzelonako Unibertsitateko Karpeta Digitala) edo The Learning Record⁶ (Texaseko unibertsitatea). Horrez gain, hezkuntza-testuinguru batzuetan, portfolio digital gisa beste plataforma batzuk erabiltzea erabaki da, hala nola blogak, web-garapenerako plataformak, wikiak edo, kasu bakarren batean, sare sozialak, adibidez Facebook (Karsak, 2016).

Horrela, bada, formatu digitalaren arabera eta portfolio digitalaren erabilera ohikoenak kontuan hartuta, tresnak hiru kategoria handitan sailka daitezke:

- Portfolio plataformak: Mahara⁷, MyDocumenta⁸, PebblePad⁹, Digication¹⁰, Brightspace ePortfolio¹¹.
- Blogak sortzeko tresnak: Wordpress¹², Blogger...
- Web garapenerako tresnak: WiX¹³, Weebly¹⁴, Google Sites ...

5 <https://www.ub.edu/portal/web/metodologies/dossier-d-aprenentatge>

6 <http://www.learningrecord.org/>

7 <https://mahara.org/>

8 <http://www.mydocumenta.com/>

9 <https://www.pebblepad.co.uk/>

10 <https://www.digication.com/>

11 <https://documentation.brightspace.com>

12 <https://wordpress.com/>

13 <https://es.wix.com/>

14 <https://www.weebly.com>

Nola egin aukera?

Plataformaren aukeraketa funtsezkoa da ikaskuntza-ingurune egokia sustatzeko (Thibodeaux et al., 2017). Ikasteko kurba nabarmena duen ingurune digital bat oso desmotibatzailea izan daiteke eta ikaslearen inplikazioa murriztu dezake (Shroff et al., 2014); aldiz, hasieratik bertatik oinarrizko erabilera erraza duen plataforma batek, erabiltzailea harekin ohitu ahala sofistikazioan ere gora egiteko aukera eskaintzen duenak, ikasleen inplikazioan eragin positiboa izan dezake. Nahiz eta ikasleak digitalki konpetenteak izan, agian ez daukate garbi "portfolio" kontzeptuak bere antolaketan eta garapenean inplikatzeko duenari buruz, eta, beraz, laguntza teknikoa ez ezik, antolaketari dagokiona eta kontzeptuala ere eskaini beharko litzateke.

Bestalde, kontuan hartuta portfolio digitala ikaslearen espazio indibidual gisa kontsideratu dugula (ikus aurreko atala), ez litzateke astakeria defendatzea ikasleak berak aukeratu beharko lukeela plataforma, erosoan arituko den plataformaren alde eginez eta bertan garatuz bere ibilbide digitala. Hala ere, hautaketa ikaslearen esku uzteak zailtasun erantsia dakarkio irakasleari, hainbat formatu kudeatu beharko baititu eta plataforma bakoitzak sor ditzakeen era askotako konplikazioak ebazten lagundu. Gainera, ikasleak aukeratutako plataformaren mugetara egokitu beharko du bere proposamena eta ebaluazio-sistema.

Gauzak horrela, kasurik gehienetan, hautaketa hori irakasleak, irakasle-taldeak, sailak edo unibertsitateak zehazten du aldezturik; izan ere, portfolio digital mota bat edo beste bat erabiltzeko erabakiak ondorio teknologiko instituzionalak ditu, batez ere, unibertsitateak hautatutako ikaskuntza-ingurune birtual (LMS) espezifikoa integratuta dagoen kasuan.

UEUren apustua: Mahara

Irakaskuntza Masterreko Aholkulari Taldeak hasiera-hasieratik egin du Mahara erabiltzearen aldeko apustua. Mahara (Maoriatik: pentsamendua), Moodleren arkitektura modular eta hedagarria oinarritutako kode irekiko softwarea da, portfolio digitala, blog sistema eta sare sozial berezi bat integratzen dituena, eta, gainera, ikaskuntza birtualeko esparru zabalago batean (Moodle-n adibidez) integratu daitekeena. Jatorriz Zeelanda Berriko unibertsitateek garatu zuten 2006an eta Catalystek mantendu zuten Zeelanda Berriko Hezkuntza Ministerioaren eta Open Polytechnic fundazioaren laguntzari esker. Azken honek 2007an Mellon Saria irabazi zuelarik lankidetzaren teknologikoagatik.

Welcome

Edit this text via 'Administration menu' -> 'Configure site' -> 'Static pages'

+ **Sortu**
Garatu zeure portfolioa

Sortu zure portfolio elektronikoa ikasketa-eremu pertsonal eta malguan

🔒 **Partekatu**
Kontrolatu zure pribatasuna

Partekatu zure emaitzak eta garapena kontrolatzen duzun eremu batean

👥 **Parte hartu**
Aurkitu jendea eta sartu taldeetan

Jarri harremanetan beste erabiltzaileekin foroen bidez eta egin taldeko lana elkarrekin

Sartu

"" bidez markaturiko eremuak derrigorrezkoak dira.

Erabiltzaile-izena: *

Pasahitza: *

Sartu

Galdutako erabiltzaile-izena/pasahitza



Lege-oharra Honi buruz Jarri harremanetan gurekin Laguntza

Irudia 1: UEUren Mahara gunea

Ezaugarriak:

- Baimenen kontrol zabala
- Curriculum Vitae
- Moodlerekin integratua
- Modularra
- Eleanitza (euskaraz ere bai)
- Intuitiboa
- Portfolio esportagarria
- Handitzen ari den komunitate dinamikoa
- Open source

Azken urteotan, mundu osoko unibertsitateek (Zeelanda Berria, Australia, Erresuma Batua, Espainia, Kanada...) Mahara plataforma hautatu dute ikaskuntza-irakaskuntzarako gune eta osagarri birtual gisa, alderdi akademiko eta soziala uztartzen dituelako, Moodlerekin bateragarritasunagatik, doakotasunagatik eta komunitate indartsu eta aktiboa izateak erakarrita. Hurbilago, UPV/EHUK EHUFolio¹⁵ eskaintzen du, Maharan oinarritutako portfolio-digital zerbitzua.

¹⁵ <https://egelaportfolio.ehu.eus/>

Mahararen hiru funtzionalitate nagusienak dira:

- **Sare soziala:** Maharak, sare sozial gisa, plataforman parte hartzen duten hezkuntza komunitateko kideen artean harremanetan jartzeko modua eskaintzen du, egunerokoan erabiltzen ditugun gainerako sare-sozialen antzeko moduan. Gure kasuan, Irakaskuntza Masterreko kide guztiek osatuko genuke Mahara komunitatea.
- **Bloga:** Banakakoak edo taldekakoak izan daitezke. Blogak aukera ematen eskaintzen du orrialdeen diseinua pertsonalizatzeko, haien antolaketa kudeatzeko eta ikus-entzunezko era guztietako elementuak sartzeko. Baita iruzkinak utzi eta erantzuteko ere.
- **Portfolioa:** Mahara portfolio digital gisa erabiltzea da, beharbada, haren modalitate bereizgarrietako eta erabilienetako bat. Mahaigain birtuala da, ikasleei informazioa antolatzen eta norekin eta nola partekatu erabakitzen laguntzen diena.

Esan bezala, UEUK Mahararen aldeko hautua egin du¹⁶. Aukeraketaren atzean dauden arrazoi garrantzitsuenak honakoak dira:

- Moodle-ekin oso ondo integratuta dago.
- Moodle <--> Mahara artean elementuak (edukia) elkarbanatzeko erraztasuna.
- UEUren Ikasgela Birtuala zabaltzen eta aberasten du, gune bakarretik bi tresnak (Moodle eta Mahara) erabiltzeko aukera eskainiz.
- Kode irekikoa eta euskaraz.
- Tresnaren erabileran eskarmentua daukaten adituen laguntza: Abel Camacho eta Juan Ezeiza.

Mahoodle

Mahara eta Moodle helburu zein metodologia aldetik tresna desberdinak izan arren, elkarren osagarriak dira eta elkarlanean aritu daitezke (ikus 2 irudia). Moodle eta Mahararen arteko integrazioa Mahoodle bezala ezagutzen da. Integrazio hori, Moodle plataforma Maharako lan-komunitateekin osatzeko eta erabiltzaile bakoitzari bere prestakuntza-curriculum eta ibilbide didaktikoa osatzeko lana errazteko erabiltzen da. Bi sistemen arteko *Single-Sign-On* (SSO) saioa hasteko aukera ematen du, pasahitzak bikoiztu beharrik gabe.

Bi modu daude Moodle eta Mahara konfiguratzeko, elkarrekin lan egiteko.

¹⁶ <https://eportfolio.ueu.eus/>

- Moodle aplikazio nagusi bezala: erabiltzaileek Moodlen sartu behar dute lehenbizi, handik Mahara sartzeko. Hauxe da erabiliena.
- Mahara aplikazio nagusi bezala: erabiltzaileek Maharan sartu behar dute lehenizi handik Moodlera salto egiteko.

Moodle tresna nagusi hartuta, bien arteko elkarlana gauzatzeko ekintza erabilienak ondokoak dira:

- Moodle-tik foro-sarrerak eta zeregin-bidalketak Mahara-ra esportatzea.
- Moodle-ko zeregin batean testua idatzi edo fitxategi bat igo ordez, Mahara-ko orri edo bilduma kalifikatzera bidaltzea. Irakasleak kalifikazioa eman arte, orri edo bilduma blokeatuta geratuko da, hots, ikasleak ezingo du editatu.



Irudia 2: Moodle eta Mahararen ezaugarri nagusiak eta elkarren arteko osagarritasuna, Irudiaren egilea: Juan Ezeiza

Mahara: oinarrizko erabilera

Proiektu honen helburuen artean ez da sartzen Mahararen erabilera-gida sortzea eta eskaintzea. Baina, hurrengo kapitutuan aurkeztuko diren proposamen didaktikoak

hobeto ulertze aldera, Mahararen erabilera gidatzen duten ekintza nabarmenenak zerrendatuko ditugu:

- Profil pertsonala eta CVa sortu
- Mahararen eduki berrerabilgarriak gehitu/txertatu (testua, audioa, bideoak...)
- Fitxategi eremua erabili edukia antolatu eta gordetzeko
- Egunkari edo blogak sortu eta erabili edukia jaso eta islatzeko
- Plangintza tresna erabili egitasmoen jarraipena programatzeko eta gauzatzeko.
- Orrialdeak eta orrialdeen bildumak eraikitzea eta partekatzea
- Edukia bidaltzea ebaluaziorako eta iruzkinak jasotzeko
- Taldeak sortu eta taldean lan egitea

Mahararen erabileran sakontzeko, erabiltzailearen online gidara jotzea gomendatzen dugu (*Mahara 19.04 manual — Mahara 19.04 manual*, d. g.).

Proposamen didaktikoak

Portfolioa gure irakaskuntza-testuinguruan aplikatzeko plana eginda eta plataforma aukeratuta, kapitulu honetan Mahara ePortfolioa Irakaskuntza Masterrean txertatzeko 5 proposamen didaktiko aurkeztuko dira. Erabilera Esparru Orokorrean zehaztu bezala, irakasgaien oinarritutako erabilera baztertu da 3 asteko iraupena soilik daukatelako. Arnasa luzeagoko ikas-prozesuetan txertatzearen alde egin dugu.

Aurkezpena

Kurtso hasieran, Mahararekin burutuko den lehen jardueran, ikasleari bere profila osatzeko eskatuko zaio. UEUK Ikasgela Birtualen garatzen diren ikastaro guztietan proposatzen duen ariketa da, Irakaskuntza Masterrean ere bai. Bi profiletan (Moodle eta Mahara) informazio bera jarri ahal izango du ikasleak baina Maharan libreago izango da bere buruaren aurkezpen informala goa egiteko, beste sare-sozialekin lotura egiteko eta baita CVA osatzeko ere. Aurkezpen ariketa, ikasleak plataformarekin izango duen lehen kontaktua izango da eta tresna ezagutu eta erabiltzen ikasteko baliatuko da baita.

Maharako profila lau atalek osatzen dute:

- **Niri buruz:** Atal honetan nahitaezko eremu bakarrak daude. Ikaslearen izen-deiturak lehenetsita daude izen gogokoenaren xehetasunekin (ikasle edo pertsonalean ezarritakoaren arabera), baina editatu egin daitezke. Txandakako bistaratze-izen bat ezar daiteke, eta zure norberari buruzko laburpen edo sarrera bat gehitu.
- **Kontakturako informazioa:** Atal hau kontaktu-xehetasunak biltzeko erabiltzen da, hala nola webguneak, etxeko eta laneko helbideak, helbide elektronikoa, telefono-zenbakiak eta abar.
- **Gizarte-profilak:** Atal honek sare sozialen hainbat profil sartzeko aukera ematen du: Twitter, Facebook, Instagram, Pinterest...

- **Orokorra:** Atal orokorrak 2 eremu besterik ez ditu - lanbidea eta lantokia; gehitu erungo lan-titulua, eta lantokia eremua Irakaskuntza Masterra izan daiteke, besterik gabe.

Kontuan izan behar da profilean publikatzen dugun informazio guztia UEUko Mahara erabiltzaile guztiek ikusi ahal izango dutela. Kontuz ibili behar da beraz publikatzen dugun informazioarekin. Dena den, Maharak gure datuen gaineko kontrol osoa ematen digu eta edozein momentutan aldatu dezakegu zer jarri publiko eta zer ez.

Ekain
MahoodleUEU(eko) partaidea

About me

Ekain Ruiz Alberdi naiz: Euskal Filologian lizentziatua eta euskara irakaslea.

Hizkuntza eta Literatura espezialitatean osatuko dut Irakaskuntza Masterra.

Gogotsu nago on-line formatuarekin esperimentatzeko!

Izena: Ekain
Deltura: Ruiz
E-posta helbidea (bat baino gehiago onartzen da): e.ruiz@ueu.eus
Eskuko telefona: 680561639

Nire lagunak

Aitzol Astigarraga
Amaia

2 lagun

Nire portfolioak

DILAN
Diziplinarteko lana egiteko orria


Nire gauzak S.A.
Masterreko gorabeherak jasotzen ahaleginduko naiz txoko honetan

Horma

Mezuko gehienez 1500 karaktere.

Paragrafoa B I

Irudia 3: Ekain Ruiz fikziozko ikaslearen aurkezpen-profila



Irudia 4: Amaia Olarain fikziozko ikaslearen aurkezpen-profila

Diziplinarteko lana (DILAN)

Masterra modulu orokorrarekin hasten da, espezialitate guztietarako komunak eta derrigorrezkoak diren irakasgaiak dituen, guztira 18 ECTS krediturekin. Bitarte horretan ikasleek Diziplina-arteko lana (DILAN) egin beharko dute. DILANa talde lana da eta bere helburua moduluko gaiak modu integralean barneratzea izango da.

DILANaren gida osatze-lanetan badago ere, ezaugarri garrantzitsuenak definituta daude:

- Taldean osatu beharreko lana
- Irailak 23 hasi eta azaroak 23 amaitu
- Modulu Generikoko irakasgaien lanketa integrala helburu

Nola erabili Mahara?

Aurkezpen ariketaren ostean, DILANa izango da ikasleek portfolioarekin izango duten lehen enkontru serioa. Bi hilabeteko tartea izanda, ikasleek Mahara erabiltzen ikasteko eta beraien portfolioa garatzeko astia izango dute.

DILANa talde-lana denez, ikasleek taldea sortuko dute Maharan eta talde horretan jasoko dituzte bitarteko guztiak eta emaitza bera.

Taldeak erabiliko dituen tresnak:

- **Foroa:** ikasleen arteko komunikaziorako tresna nagusia.
- **Egitasmoa:** DILANaren plangintza eta lan-banaketa jasoko duena.
- **Taldeko bloga:** Ikasgaietan jasotako ebidentziak, hausnarketak... jasoko dituena.
- **Orria:** DILANaren erakusleioa izango da. Orriak ondoko osagaiak erakutsiko ditu:
 - Lanaren aurkezpen laburra
 - Taldekideak
 - Egitasmoaren plangintza
 - Taldeko bloga
 - Fitxategiak

Irakasle lanbidea

Egilea: DILAN
Etiketak: DILAN


Egoera:

Azken urteetan garatu izan diren ikerketa desberdinek erakutsi izan dute gaur egungo gazteek izaera desberdin bat dutela, aurreko garaitekoekin konparatuz. Egoera hori deskribatzeko "belaunaldi biguna" izena erabili izan da. Ezaugarri propioen artean gurasoengandik gehiegizko babesa jasotzea eta autonomia garapen eskasa topatu egiten dira. Bi ezaugarri horien ondorioz eskolan garatzen diren irakasle-ikasle dinamikak desberdinak izaten hasi dira. Errealitate berri honek ekar ditzakeen ondorioei aurre egiteko, Hezkuntza Sistemak, eta Irakasleak bereziki, rol garrantzitsua jokatu dugu egoera horretan.

Zeregina:

Etorkizuneko irakasleak izango zaretela kontuan hartuta, Interesgarria da belaunaldi berrietako haurren izaera ezagutzea. Horretarako, txosten bat prestatu beharko duzue; baloratuko da, era berean, zuen gertuko errealitatea (zuen herria edo hiria) aztertzea.

Irakasle-lanbidea



Mezuak

Aste honetan lanpetuta
Amaia

Aurkezpena

Talde hau osatzen dugu:

- Ekain Ruiz
- Amaia Olarain
- Aitzol Astigarraga

Orri hau gure lanaren erakusleihoa izango da.

Lan-dokumentuak

K1LH.pdf
asteazkena, 2020(e)ko uztailak 08 [807,9KB]

Bloga

Irakasgai ezberdinetatik jasotako ebidentziak eta ohar interesgarriak bilduko ditugu hemen. Ondoren DILANean txertatu ahal izateko.

Etiketak: DILAN

Lan kooperatiboa

Amaia(e)k bidaltakoa 2020(e)ko uztailaren 08(e)an, 06:52 (e)tan-(e)n)

Irakasgaitza Masterreko irakasleak beren etorkizuneari irakasle ekipoetan lan egiteko prestatu behar dira. Halaber, gure eskoletako irakasle lanean ikaskuntza kooperatiboa gero eta garrantzitsu handiagoa lortzen ari da. Hau dela eta, taldeka lan egiteko gaitasuna garatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Lankidetzak konpartitutako helburuak lortzeko elkarrekin lan egitea da. Lankidetzan, pertsona bakoitzak berarentzat eta guztientzat onuragarriak diren emaitzak bilatzen

Irudia 5: DILANa burutzeko Mahara erredua

Practicum

Practicum modulua dagokion espezializazioan sartzen da, 12 ECTS kreditu (300 ordu) guztira. Praktika horiek aukera egokia izango dira irakaskuntza esperientziari buruzko hausnarketa egiteko, oinarri hartuta masterreko gainontzeko gaietan eta moduluetan lortutako ezagutzak.

Practicuma honela gauzatuko da:

- 2021ko martxoaren 15etik maiatzaren 28ra arte.
- 190 orduko praktikak ikastetxe edo hezkuntza-erakunde batean, 8 astetan zehar eta aurrez aurreko modalitatean.
- Aurrez aurreko saioak practicumaren koordinatzailearekin, prestaketa, jarraipen eta balorazio-lanak burutzeko.
- Gainerako orduak (110) ikasleak lan autonomoan erabiliko ditu: datu bilketa, praktiken egunkaria, tutoretza saioak, praktiketako txostena eta abar.
- Practicumaren amaieran ikasleak praktiketako txostena aurkeztuko du.

Ikasleak Praktiken Egunkaria egingo du, eta bertan jasoko ditu ikastetxean egunero egiten dituen jarduerak eta bere ustez garrantzitsuak, interesgarriak edo esanguratsuak izan daitezkeen egoerak, horrela gogoeta sakonagoa eta oinarritua egin ahal izateko. Egunkaria ez da erregistro hutsa izango, irakaskuntzako praktika aldiari buruzko hausnarketa pertsonala egiteko tresna baizik. Bertan praktika aldiaren balorazio pertsonala eta profesionala egin behar da. Eta, gero, Praktiketako Txostenaren atal ezberdinak lantzeko balioko du.

Nola erabili Mahara?

Portfolioa erabiltzeko bi modu bururatu zaizkigu:

- Portfolioa bi tutoreak (ikastetxekoa eta Irakaskuntza Masterrekoa) eta ikaslea harremanetan jartzeko gune bezala.
- Portfolioa ikaslearen gune gisa, praktikaldiari buruzko dokumentazioa jaso eta garapenaren berri emateko lekua.

Bigarrenaren aldeko hautua egin dugu.

Ikasleak orri bat sortuko du Maharan, Practicum izenekoa, eta bertan ondoko elementuak txertatuko ditu:

- Aurkezpena: ikaslearen aurkezpena, testu edo bideo bidezkoa.
- Ikastetxea eta bere ezaugarriak: testu eta irudiz osatua
- Egunerokoa: ikastetxean jasotakoak, gogoetak... bilduko ditu. Praktikaldiaren gogoeta pertsonala eta profesionala.
- Fitxategiak: unitate didaktikoak, ikastetxeko gidak, bukaerako txostena... jasotzeko gunea.

Practicum

Egilea: Ekain
Etiketak: Practicum

Hernaniko Langile ikastolan egindako praktikaldia jasotzeko orria.

Langile ikastola



Konpetenziak

Honako hauek dira ikasle bakoitzak praktiketan eskuratu behar dituen oinarrizko konpetenziak:

- 1) Ikasleen ezaugarriak, beren gizarte testuinguruak eta motibazioak ezagutzea.
- 2) Jarduera eremu desberdinetarako hobekuntza proposamenetan parte hartzea, praktikan oinarritutako gogoeta abiapuntu hartuta.
- 3) Esperientzia hartzea espezialitateko galak antolatu, irakatsi eta ebaluatzeko lanean.
- 4) Irakasle lanerako beharrezko den ahozko adierazpen eta adierazpen idatzi egokia erabiltzea.

Leku-marka

Lehen fasea

Ekain(e)k bidaltakoa 2020(e)ko uztailaren 08(e)an, 07:10 (e)tan-(e)in

Fase hau hastapeneko eta behaketarako da; ikasleak ikastetxeko gizarte testuingurura eta antolaketara hurbiltzeko aukera izango du, bai eta bertako kultura profesionalera ere; horrez gain, irakasle taldeen eta sallen eguneroko lana eta gelako funtzionamendua ezagutu ahal izango ditu.

Tutoreak

Ekain(e)k bidaltakoa 2020(e)ko uztailaren 08(e)an, 07:09 (e)tan-(e)in

Dagoeneko badauzkat tutoreak bai ikastolan eta baita UEUn ere.

Lehen eguna ikastolan

Ekain(e)k bidaltakoa 2020(e)ko uztailaren 08(e)an, 07:08 (e)tan-(e)in

Martxoak 17. Gaur joan naiz lehen aldiz Langile ikastolara. Urduri, garai bateko lehen klase egunean

Leku-marka

Tutorearekin lehen bilera
Osaketa-data: martxoak 21

Maharari Practicum orria sortu
Osaketa-data: martxoak 30

Egunkaria martxan jarri
Osaketa-data: martxoak 31

Lehen fasea
Osaketa-data: apirilak 11

Bigarren fasea
Osaketa-data: apirilak 19

5 lan

Irudia 6: Practicum-aren jarraipenerako Mahara eredu

Berrikuntza Ikasgelan

Berrikuntza Ikasgelan hautazko ikasgaia da: berrikuntza eta ikerkuntza ardatz dituen ibilbidea proposatzen du eta ikasleak aukeratutako hezkuntza zentroan burutuko du modu praktikoa.

Irakasgai honek 6 ECTStako iraupena izango du eta espezialitate bakoitzeko Berrikuntza eta Ikerkuntzako moduluan eskainiko da hautazko ibilbide moduan. Ibilbidearen ezaugarriak direla eta, behar duen jarraipen egokirako, 10 ikasle soilik onartuko dira espezialitate bakoitzean. Hiru asteko iraupena izango du.

Xede nagusia, ikasleek berrikuntza didaktiko-metodologikoen inguruko erronkaren bat identifikatu eta proposamen bat egitea da. Helburu horrekin, ondoko edukiak landuko dira:

- Gaiari buruzko sarrera orokorra, ikerketako eta ondorengo hezkuntza-berrikuntzako oinarrizko kontzeptuak eta ikuspegi metodologikoak ezagutzeko.

- Hezkuntza-komunitatearekin harremanetan jarrita, ikasgelan arazoa antzemateko tresnak ezagutu eta erabiltzea eta ondoren ikerketa bat diseinatzea: arazoa formulatzea, datuak biltzea eta aztertzea.
- Proposamen berritzaileen eraginkortasuna *in situ* ezagutzea, ikas-irakaskuntzako ikerketako emaitzen sarrera orokor batetik abiatuta.
- Unitate didaktiko berritzaileak ezagutu eta aztertzea. Unitate didaktiko berri bat diseinatzeko modua ezagutzea.

Berrikuntza proposamena testuinguru errealean behar bezala gauzatu eta emaitzak jaso ahal izateko irakasgaia hezkuntza zentro batean garatuko da, zentroaren beharrei egokiturik, eta modu praktikoan. Zentroan igaro beharreko ordu-kopurua berrikuntza egitasmoaren baitakoa izango da baina sekula ez 30 ordutik gorakoa.

Nola erabili Mahara?

Irakasgai honen lanketan Mahara erabiltzeko, DILANaren eredu bera proposatzen da.

Berrikuntza Ikasgelan lantzeko ikasleek taldea sortuko dute Maharan.

- **Foroa:** ikasleen arteko komunikaziorako tresna nagusia.
- **Egitasmoa:** egitasmoaren plangintza eta lan-banaketa jasoko duena.
- **Taldeko bloga:** Ikasgaietan jasotako ebidentziak, hausnarketak... jasoko dituena.
- **Orria:** egitasmoaren erakuslehioa izango da. Orriak ondoko osagaiak erakutsiko ditu:
 - Lanaren aurkezpen laburra
 - Taldekideak
 - Egitasmoaren plangintza
 - Taldeko bloga
 - Fitxategiak

Master Amaierako Lana

Master Amaierako Lana (MAL) bakarka egin beharreko lan akademikoa da, 6 ECTS kredituko karga duena (150 ordu). Ikasleak, ikerketa hastapeneko edo hezkuntza berrikuntzako ikerketa-lan bat proposatu eta garatu beharko du irakasle baten zuzendaritzapean. Hortaz, ikasle bakoitzak azterlan bat idatzi eta aurkeztu behar du, eta lan hori epaimahai baten aurrean defendatu, irakaskuntza lanerako behar diren gaitasunak barneratu eta aplikatzeko gai dela erakutsiz.

MALa, oro har, hezkuntza berrikuntza edo ikerketa proposamen batean oinarrituko da, eta praktiken txostenetik bereizitako proposamena izango da.

Nola erabili Mahara?

Oraon arteko proposamenetan ikaslea edo ikasle-taldea izan da portfolioaren arduraduna. Kasu honetan ordea, irakasle-ikaste artean sortu eta elkarbanatutako portfolioa proposatzen dugu. Zergatik? Bada MALa egiteko ikasle eta zuzendariaren arteko koordinazio egokia ezinbestekoa delako: mezuak, jarraipen-bilerak, fitxategi-trukea... Sarritan emaila erabili ohi da komunikazio-tresna nagusi gisa baina mezu-trukeak hazi ahala jarraipena egitea kostatu egiten da eta dispertsiorako joera izaten da.

Maharan oinarritutako Arbela, ikaslearen eta irakaslearen arteko enkontru puntu-gisa planteatzen da, MALaren jarraipena egiteko. Gune bakarrean MALari lotutako informazio guztia eskura izateko modua:

- Foroaren bitartez, komunikazio guztiak eskura leku bakarrean. Bestela, emailetan dispertsiorako joera.
- Fitxategiak karpeta bakarrean eta eguneratuta.
- Fitxategiak eta jarraipena edonondik egiteko aukera (online).
- MALaren garapenean zuzendari berri bat sartuko balitz, ordu arte egindakoaren eskualdatzea erraza litzateke.

Arbela eredu Moodle-en bertan ere inplementatu daiteke, irakasle eta ikaslearen arteko gune gisa. Baina Maharak multimedia edukiak bildu eta erakusteko eskaintzen dituen erraztasunak tarteko, azken hau tresna egokiagoa izan daitekeela uste dugu. Gainera, gune elkarbanatua izan arren, kudeatzailea eta arduradun nagusia ikaslea izango da.

Arbela: MALaren jarraipenerako tresna

Egilea: Aitzol Astigarraga (a.astigarraga)
 Etiketak: MAL

Aitzol Astigarragaren MAL jarraipena. Zuzendaria: Abel Camacho

MAL arbela



Proiektuari buruzko mezuak

Irudia 7: MALaren jarraipenerako Mahara eredua: ikasle eta irakasleak elkarbanatutako orria

MAL dokumentuak

Mahara_2020-07-11.odt

Online gidaliburua_2019-2020(1).pdf

Bileren-jarraipena

Masterreko proiektuaren jarraipen-bilerak jasoko ditugu hemen.

Etiketak: MAL

Proiektua zehazten: 2020-03-29

Aitzol Astigarragarek bidalitakoa 2020/eko uztailaren 12/lelan, 12:26 (le/lan-lein)

Bigarren bileran egitasmoaren zirriborra aurkeztu diot zuzendariari. Zuzenketak egin eta adostu dugu.

Lehen-bilera 2020-03-17

Aitzol Astigarragarek bidalitakoa 2020/eko uztailaren 12/lelan, 12:26 (le/lan-lein)

Ondorioak

Atzera begira jarriz gero, proiektuari hasiera eman zion kezka hartatik gaur arte ibilitakoari erreparatuz, egindako bidearekin konforme ez ezik pozik ere bagaudela aitortu behar.

Moodle-ko ikastaroak ixtean galtzen den edukiak eman zion hasiera ikerketari eta, amaitzear dagoen honetan, eduki hori jaso ez ezik norberaren ikas-ibilbide osoa gorde eta antolatzeko tresna ezagutu dugu: portfolio digitala. Aukera ezberdinak aztertu ditugu eta Mahara plataformaren aldeko hautua egin. Moodle ez bezala, ikaslearengan zentratutako tresna da Mahara, ikaslea delarik bere gunearen arduradun eta administratzaile bakar.

Portfolio digitalak UEUren goi-mailako irakaskuntzan egin lezakeen ekarpenaz konbentziturata, 2020-21 ikasturtean abiatzekoa den Irakaskuntza Masterrean ezartzeko pausoak eman ditugu: (1) masterraren ezaugarrietara egokitutako portfolioaren erabilera-plana diseinatu dugu lehenbizi eta (2) Mahara plataformaren aldeko apustua eginda, ikasturte berrian martxan jartzeko proposamen didaktiko zehatzak aurkeztu ditugu.

Egindako lanarekin, proiektuaren helburuak lortu ditugula esan genezake. Hala ere, ez genuke hegan dakien astorik saldu nahi. Diseinu lanari lotutako proiektua izan da eta garrantzitsuena egin gabe utzi dugu: martxan jartzea. Gure asmoa da ikasturte berrian (2020-21) ikasle eta irakasleen esku jartzea portfolioa eta hemen proposatutako ereduak probatzea. Masterraen lehen edizioa amaitu eta behin ebaluazioa eginda, lehen ikasturteko datuekin proposamena zuzendu eta eguneratuko dugu. Azken helburua portfolio digitala UEUren hezkuntza ereduaren parte bihurtzea litzateke, ikas-irakas prozesuan benetan tresna baliotsua izan dadin. Bide horretan gara.

Bibliografía

- Arís Redó, N., & Fuentes Loss, M. (2016). *La elaboración del portafolio a través del trabajo cooperativo y la autoevaluación*. <https://doi.org/10.35362/rie71214>
- Barberà, E., Bautista, G., Espasa, A., & Guasch, T. (2006). Portfolio electrónico: Desarrollo de competencias profesionales en la Red. *RUSC. Universities and Knowledge Society Journal*, 3(2), 55–66.
- Buente, W., Winter, J. S., Kramer, H., Dalisay, F., Hill, Y. Z., & Buskirk, P. A. (2015). Program-Based Assessment of Capstone ePortfolios for a Communication BA Curriculum. *International Journal of EPortfolio*, 5(2), 169–179.
- Büyükduman, İ., & Şirin, S. (2010). Learning portfolio (LP) to enhance constructivism and student autonomy. *Procedia - Social and Behavioral Sciences*, 3, 55–61. <https://doi.org/10.1016/j.sbspro.2010.07.012>
- Carretero, S., Vuorikari, R., & Punie, Y. (2017). The digital competence framework for citizens. *Publications Office of the European Union*.
- Corley, C. R., & Zubizarreta, J. (2012). The Power and Utility of Reflective Learning Portfolios in Honors. *Journal of the National Collegiate Honors Council*, 13(1), 63–76.
- Díaz Barriga Arceo, F., Romero Martínez, E., & Heredia Sánchez, A. (2012). Diseño tecnopedagógico de portafolios electrónicos de aprendizaje: Una experiencia con estudiantes universitarios. *Revista electrónica de investigación educativa*, 14(2), 103–117.
- Donaldson, L., Buckley, K., Farrell, O., & Uí Choistealbha, J. (2018). Reflections on eportfolio professional learning: Harnessing an unconference approach. *The AAEBBL Eportfolio Review*, 2(3), 20–29.
- Farrell, O., & Seery, A. (2019). “I am not simply learning and regurgitating information, I am also learning about myself”: Learning portfolio practice and online distance students. *Distance Education*, 40(1), 76–97.
- Fisher, M. B., & Hill, A. J. (2015). Eportfolio Adoption and Implementation in a Multiple Campus University Environment—a Reflection on Opportunities and Challenges

Emerging When Engaging Academic Staff and Students in Adoption of Eportfolio Technologies Implemented in Learning and Teaching at Australian Catholic University. *Literacy Information and Computer Education Journal (online)*, 6(1), 1821.

Gómez, Encarna Soto, Gómez, E. S., Núñez, M. J. S., Núñez, M. J. S., Caparros-Vida, R., & Caparros-Vida, R. (2016). Learning to teach with lesson study. *International Journal for Lesson and Learning Studies*, 5(2), 116–129. <https://doi.org/10.1108/IJLLS-12-2015-0042>

Gómez, Encarnación Soto, Ruiz, J. B., & Navas, M. F. (2016). Portafolios electrónico y educativo: El e-portafolios. *El portafolios educativo en educación superior, 2016, ISBN 978-84-460-4245-7, págs. 141-162*, 141–162. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5420030>

Karsak, H. G. O. (2016). The Two Faces of Teacher Candidates' Portfolio Experiences: Tradition and Facebook. *Universal Journal of Educational Research*, 4, 216–225.

Klenowski, V. (2004). *Desarrollo del portafolios para el aprendizaje y la evaluación: Procesos y principios*. Narcea Ediciones.

Kluzer, S., & Priego, L. P. (2018). DigComp into action: Get inspired, make it happen. A user guide to the European Digital Competence Framework. In *JRC Working Papers* (Zenb. JRC110624; JRC Working Papers). Joint Research Centre (Seville site). <https://ideas.repec.org/p/ipt/iptwpa/jrc110624.html>

Lewis, L. (2015). A critical reflection on eportfolio as a teaching tool. *Teachers' Work*, 12(2), 115–130. <https://doi.org/10.24135/teacherswork.v12i2.179>

López-Fernández, O. (2008). *Digital learner portfolio as a tool for inovating assessment in the European Higher Education Area*. <http://diposit.ub.edu/dspace/handle/2445/29823>

Mahara 19.04 manual—Mahara 19.04 manual. (d. g.). Berreskuratua 2020(e)ko uztailakaren 12a, -(e)tik <https://manual.mahara.org/en/19.04/index.html>

Morreale, C., Van Zile-Tamsen, C., Emerson, C. A., & Herzog, M. (2017). Thinking Skills by Design: Using a Capstone ePortfolio to Promote Reflection, Critical Thinking, and Curriculum Integration. *International Journal of EPortfolio*, 7(1), 13–28.

Munday, J. (2017). An Embedded ePortfolio in a Master's Degree: Is It Working? *International Journal of EPortfolio*, 7(2), 175–185.

- Muñoz González, L. de la C., & Soto Gómez, E. (2020). *Mahara como red social y portafolio digital en los nuevos contextos de formación inicial docente. Un estudio de caso*. <https://doi.org/10.6018/red.397021>
- Pujolà, J.-T. (2019). *El portafolio digital en la docencia universitaria*. Ediciones Octaedro & Universitat de Barcelona. IDP/ICE. <http://diposit.ub.edu/dspace/handle/2445/152179>
- Rey Sánchez, E. (2015). *El uso del portafolio como recurso metodológico y autoevaluativo en el área de conocimiento del medio*. <http://helvia.uco.es/xmlui/handle/10396/12764>
- Rubio Hurtado, M. J., Vilà Baños, R., & Aneas Álvarez, M. A. (2015). *Portafolios electrónico y actitudes hacia las TIC del alumnado en la asignatura de Prácticas Externas*. <http://diposit.ub.edu/dspace/handle/2445/110773>
- Salarirche, N. A. (2016). La evaluación a través de portafolios: ¿una ocasión para el aprendizaje? *Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa*, 9(1), 31–46.
- Santa Cruz, S., Ipiña, N., & Astigarraga, E. (2019, ekainak 26). *Teachers' perceptions about the use of the Learning ePortfolio as learning and assessment tool in Mondragon Unibertsitatea*. <https://doi.org/10.4995/HEAD19.2019.9359>
- Scully, D., O'Leary, M., & Brown, M. (2018). The learning portfolio in Higher Education: A game of snakes and ladders. *Dublin: Dublin City University, Centre for Assessment Research, Policy & Practice in Education (CARPE) and National Institute for Digital Learning (NIDL)*.
- Shroff, R., Deneen, C. C., & Lim, C. P. (2014). STUDENT OWNERSHIP OF LEARNING USING E-PORTFOLIO FOR CAREER DEVELOPMENT. *Journal of Information Systems Technology & Planning*, 7(18).
- Siarova, H., Sternadel, D., & Masidlauskaite, R. (2017). Assessment practices for 21 st century learning: Review of evidence. *NESET II report*.
- Thibodeaux, T., Cummings, C., & Harapnuik, D. (2017). Factors That Contribute to ePortfolio Persistence. *International Journal of EPortfolio*, 7(1), 1–12.
-